



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak astearte goizetan egiten du ohiko bilkura. Alkatea da burua, baina horrek beste kide bat eskuordetu dezake presidentziarako, eta zazpi zinegotzi ordezkariak dira Gobernu batzarkide. Horrela legeak agindutakoa betetzen da; izan ere, legearekin bat gehienez ere zinegotzi guztien herenak osa dezake Tokiko Gobernu Batzarra, alkateaz gainera (Iruñean 27 zinegotzi dira). 2015ean, Tokiko Gobernu Batzarrak 72 bilera egin zituen. Haietan, 584 erabaki hartu ziren.

	2011	2012	2013	2014	2015
Ohiko bilkurak	46	45	44	47	44
Bilkura bereziak	2	-	1	-	1
Presako bilkura bereziak	10	23	27	24	27
GUZTIRA	58	68	72	71	72
Hartutako erabakiak	576	442	467	511	584

Tokiko Gobernu Batzarra izan da Iruñeko Udaleko kide anitzeko organoen artean lehena espediente guztiak elektronikoki bideratzean. 2014tik, Batzar horretako kide diren zinegotziek elektronikoki aldeztu aurretik kontsulta ditzakete, Udal-espedienteen Kudeatzailearen bitartez, batzarrean eztabaidatuko diren edukiak. Halaber, udal-batzorde informatiboak ere digitalizatu ziren: "Lehendakaritza", "Herriaren Aferak", "Hirigintza", "Irakokizunak eta Erreklamazioak" (bi hilabete behin), "Kontuak" (sei hilabete behin) eta "Kontratazioak zaintzekoa" (hiru hilabete behin).



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala